

Adunako Zabalak aurkeztuta-
ko sagardo batek irabazi zuen
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
sagardo-lehiaketaren V. edi-
zioa. Bigarrena, berriz, Herna-
niko Olaizola sagardotegia
izan zen, eta Irungo Ola, hiru-
garrena. Azken edizioan 25 en-
presa-sagardogile aurkeztu zi-
ren, aurreko urtean baino hiru
gutxiago.

Adunako Zabalak jantzi Zuen txapela 2006an

25 sagardogilek parte hartu zuten lehiaketaren V. edizioan

Azpitarragarria
da herrialde osoko
sagardoak
aurkeztu izana



Hernaniko Olaizola, Adunako Zabala eta Irungo Ola.

Jose Mari Martinez

Landa Ingurunearen Garapene-
rako diputatu den Rafael Uribe-
renaren eskutik jaso zituen Mar-
tin Zabalak txapela, diru-saria
-1.500 euro-, diploma eta kupel
txikiak, garaikur gisa, eta bere
etxera eraman zituen, Adunako
Ramon Zabala sagardotegira.

Sagardotegi honek 2004an ere
lortu zuen txapel hau, eta beste
edizio batean finalista izan zen.

Bigarren saria Hernaniko
Olaizola sagardotegikoek lortu zu-
ten. Oso emaitza ona, beraz, Olai-
zola-errentzat, bi urte baino ez
baitira igaro antzinako Eizmendi
sagardotegia eskuratu zutenetik.

Hirugarrena Iñaki Bengoe-
txea, Irungo Ola Sagardotegikoa,
izan zen. Bigarren eta hirugarren
salikatuak diru-saria -1.000 eta
500 euro, hurrenez hurren- eta
irabazlearena baino garaikur txi-
kiagoak jaso zituzten.

Garaikurrak Donostiako Ibae-
ta auzoko Kanpoeder baserriko
Jesus M^a Garmendia artisauak
egin zituen, urtero bezala. Aurre-
neko lehiaketarako, karreto-ba-
rrika prestatu zuten garaikur gisa;
azken edizioan, aldiz, hiru kupel
txiki izan ziren.

Iñaki Larrañagak, Foru Al-
dundiko teknikariak, azpitarra-
tu du finalistek eta lehenengo pos-
tuetan geratu zirenek Euskal
Herriko sagar asko erabiltzen du-
tela haien sagardoak egiteko. Adu-
nako Zabalak, batez ere, urtero

erabiltzen ditu hemengo sagra-
rrak, bai bere sagastietakoak bai
inguruetakoak. Iñaki Bengoetxe-
ak ere gero eta sagarrondo gehia-
go landatzen ditu bere sagastie-
tan, eta etxeko sagarra erabiltzen
duela esan daiteke.

V. edizioa 25 enpresa-saga-
dogile aurkeztu ziren, Gipuzkoako
15 herritatik etorriak: Astigarra-
gatik, 7 sagardogile; Hernanitik, 4;
Usurbildik, 3; Urnietatik, 2; eta
Abaltzisketa, Aduna, Andoain,
Ikaztegieta, Irun, Oiartzun, Tolo-
sa, Zarautz eta Zeraindik, sagra-
dogile bana. Azpitarragarria da
herrialde osoko sagardoak aur-

keztu izana, horrek argi uzten bai-
tu sagardoa ez dela soilik sagra-
doaren lurraldea osatzen duten he-
rrietakoa (Astigarraga, Hernani,
Urnietatik, Usurbil), baizik eta Gi-
puzkoa osokoa.

Lehiaketa honetan parte har-
tzeko baldintzak honako hauek
dira: sagardo naturala egitea, en-
presa Gipuzkoan erroldatuta ego-
tea, Eusko Jaurlaritzako Nekaza-
ritza Industriaren Erroldan izena
emanda egotea eta Botila Erre-
gistroa edukitzea.

Bai ikuspuntu organoleptiko-
tik bai ikuspuntu analitikoetik, sa-
gardo natural botilaratuaren kali-

tatea baloratzea da Foru Aldun-
diak antolatzen duen lehiaketa ho-
nen helburua. Izan ere, kontuan
hartu behar da sagardoa, neguan
kupeletik edo txotxean edateaz
gainera, botiletan ere edaten dela
urte osoan zehar, batez ere udan.

Lehiaketa honetan parte har-
tzeko, sagardoak analisi bat gain-
ditu behar dute. Horrek seriotasun
handia ematen dio lehiaketari.
«Sagardoaren eta sagarretik ate-
rarako beste edarien Erregela-
mendua» betetzen duten laginak
dastatze-fasera pasatzen dira. Bi-
garren fase horretan, dastatzera-
koan, epaimahaiak finalean zer sei

sagardo sartuko diren aukeratzen
du, eta sagardo horien artean era-
bakitzen da txapelduna, Donostia-
ko Gastronomiako Euskal Anaiar-
tean egiten den kata batean.

Sagardo Lehiaketako Epai-
mahaiak hamar lagunek osatzen
dute: sagardogileek bost epaima-
haikide proposatzen dituzte, eta
Gipuzkoako Foru Aldundiko Lan-
da Ingurunearen Garapenerako
Departamentuak beste bost kide
aukeratzen ditu; dastatze-lanetan
adituak, sagardoaren munduan
lan egiten duten enologoak, edo
gastronomoak edo antzekoak iza-
ten dira.



Kalitatea, jatorrian dago.

Ikerketan inbertituz, nekazaritza indartzen dugu.
Sagardo on bat, hazi on baten ondorioa da.

En el origen está la calidad.

Invertimos en investigación y apoyamos a la agricultura.
La buena sidra es el fruto de una buena semilla.

**Hilabetetan hau izan da kupelik onena.
Durante meses esta ha sido la mejor kupela.**



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentua
Departamento para el Desarrollo del Medio Rural